

BOLOGNA PROZESUA ETA NAZIOARTEKO EGOERA

0.- SARRERA

Globalizazioa azkeneko urteetan askotan entzun dugun hitza da. Komunikabidetan askotan agertutako hitza eta, agian horregatik, esanahirik gabeko hitza. Oro har mundu mailan gertatzen den edozein fenomenori globalizazioaren ondorioa dela esaten dugu... baina, zer da zehazki globalizazioa?

Globalizazioa merkatuaren globaltasuna da, hau da, mundu mailan merkatu bera egotea. Horretarako kultura, dirua, lan-eskua globalizatu behar dira. Baina honek ez du esan nahi mundu guztiak kultura, dirua... izango duenik, baizik eta dirua izango dutenak, hots, kultura saldu eta lan-eskua kontrolatuko dutenak mundu mailako enpresariak izango direla esan nahi du.

Merkatu global hori ez zaigu guri, ikasle garen heinean urruti geratzen, ezta gutxiago ere. Irakaskuntza, baloreak transmititu eta etorkizuneko lan-eskua eta eliteak sortzeko medio gisa ulertu behar dugu, hala ulertzen baitute ere agintariek eta enpresariak.

Irakaskuntza bere hasieratik izan zen gutxi batzuentzako esparrua. Hala ere, Aro Modernotik hona geroz eta aukera gehiago izan ditu gizarteak hezkuntza jasotzeko. Orain dela mende bat lehen hezkuntza ia orokortzen zen bitartean, azkeneko 20 urtetan Unibertsitatean geroz eta ikasle gehiago zeudela ikusi dugu, nahiz eta biztanleria gutxitu.

Hirugarren munduan, ordea, irakaskuntza pribilejiatuentzako aukera bat da eta hainbat herritan ez da aukera bat ere ez. Eta, unibertsitateak daudela egia bada ere, hauetan ikastea dirudunentzat eta dauden beka eskasak lortzen dituztenentzat mugatua da.

Eta momentu honetan herri garatuenentzat irakaskuntza pribatua garrantzitsuena izaten jarraitzen du. Hala da lehen hezkuntzan baina oraindik nabariagoa da Hezkuntza ez Derrigorrezkoan. Herrialde gehienetan prestigio handiena duen unibertsitatea pribatua da. Guztiok entzun dugu MIT, Boston, Harvard, Yale, Cambridge... izenak. Eta izen horiek entzun ditugu unibertsitate mota berekoak direlako: eredu anglosaxoikoak. Eredu honetan unibertsitatea hezkuntzaz gaindi doan enpresa bat da eta unibertsitateak berak erabakitzen ditu nor onartu eta nor ez. Eredu Europarrean, ordea, unibertsitate gehienetan sarrera irizpideak behin beteta sarrera erraza da.

Sarrera erraza da. Hori da Europako hainbat herrialdeetako enpresaburuek eginiko erreflexioa. Baina, zintzoa eta justua den jendeak hori onuragarria den zerbait lez ikusten duen bitartean beraiek bere elite izaera arriskuan jartzen duen zerbait dela uste dute. Eta horregatik erabaki dute eredu anglosaxoia bultzatzea: unibertsitatea pribatizatzea da helburua eta hori lortzea oso zaila denez, ereduak berdintzeko saiakera bat egingo dute.

Txosten honetan Europar Batasunetik zehazki eta mundu mailan orokorrean ematen ari diren pausuak aztertu eta bere kareta idilikoa kendu nahi diegu. Azken finean kalitatea eta berdintasunaren izenean egiten ari diren aldaketa hauek bere interes ekonomiko eta politikoei lotuta dago. Era berean txosten honekin aldaketa

hauek zer ondorio izango duten aztertu nahi dugu. Baina ez askotan Europako hainbat ikasle taldek, antiglobalizazio taldek... egin duten ikuspuntutik, baizik eta Euskal Herriko ikasle on ikuspuntutik. Hau da, ondorio sozialez gain estaturik gabeko nazioentzat eta hainbat nazio txiki entzat izango duen eragina aztertu nahi dugu. Azterketa honek agerian utzi nahi ditu dituzten helburu maltzurak. Azterketa honekin hainbat herri gutxitutan debate bera eman dadin bultzatu nahi dugu eta Europa mailan zein mundu mailan egiten diren forotan eztabaida hau presente egon dadila nahi dugu.

Azterketa egiterako garaian asko dira interpretatu beharrekoak. Azken finean mota honetako azterketa sakon bat egiten den lehen aldietakoa da. Europar Batasunak eta MMEren akordioak sinatu duten herrialdeek ez dute datu askorik ematen azterketa serio bat egin ahal izateko. Guztia da azpijokoa. Eskerrak hainbat ikasle taldek jada azterketa partzialak egin dituztela, azterketa hau izan nahi duena baino zehatzagoak horietako asko. Beraz iturri ezberdinak ditugu, bai testu ofizialak bai eta egindako diagnostikoak.

Azkenik, aipatu nahi da, hemen eginiko erreflexio guztiak zuzenak ez izatea gerta daitekeela; gobernuek izandako azpijokoaren ondorioetako bat da. Ez dute garbi jokatzen eta horregatik aipatutako datu asko interpretatu behar dira. Interpretazio horiek ahalik eta zuzenenak izateko beste hainbat adierazpen, gertakari edo tendentzia ikertu behar dira eta, agian, interpretazioa izateagatik aipatutako ondorio batzuk gehiegikeria izan daitezke. Hala ere, hemen aipatutako guztia gertatuko delakoan gaude.

1.- MUNDUA

1.1. MME-ZSAO

Sarreran azaldu den bezala globalizazioak merkatuaren globaltasuna bilatzen du. Baina globalizazioa ez da pertsona bat edo erakunde bat. Globalizazioa norbaitek eragiten duen fenomeno da. Norbait hori Munduko Merkataritza Erakundea da (MME-WTO).

MME Genoa dauka bere egoitza nagusia. Bertan estatuak hartzen dute parte, hau da, MME ez da enpresariak sortutako gune bat, baizik eta estatuak sortutakoa. Baina estatu hauek, noski, ez dute bere kasa erabakirik hartzen, baizik eta estatuan bertan dauden lobby ekonomiko eta enpresariak bultzatuta eta askotan beste herrialdeetakoak diren eta zeure herrialdean daudenen mehatxuengatik.

MMEk sinatutako ZSAO (Zerbitzuen Salerosketarako Akordio Orokorra – GATS) akordioak MMEren partaide diren 144 herrialdeetan 160 zerbitzu mota pribatizatze bidea irekitzen du. Baina, zer da zerbitzua?

ZSAOren arabera zerbitzuek behar dugun guztiarekin eta estatuak ematen duten guztiarekin erlacionatutako guztia da. Definizioaz zerbitzua gizakiok behar dugun guztia betetzeko beste gizaki batek sortutakoa da, hau da, ez dena ukitu daitekeen onura fisiko bat. Zerbitzu mota asko daude, bihotz transplanteetatik errepideen eraikuntzara; elektrizitate uraren garbiketara eta umeen zaintzatik hezkuntzara. Guztira, lehen esan bezala, ZSAOk 160 zerbitzu mota definitzen ditu.

ZSAOren arabera zerbitzuak garrantzi berezia dute guretzat. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte erabiltzen ditugu. Horregatik lan askok zuzenean dute erlazioa besteei zerbitzuak ematearekin. Bizi ereduaren arabera zerbitzu batzuk besteak baino unibertsalagoak izango dira, bertara iristea errazagoa baita.

Nazioarteko interes ekonomikoek zerbitzuen arauak aldatzen ari dira. Interes ekonomiko horiek handitzen doazen heinean multinazionalak estatu ezberdinetan aurkitzen dituzten traben ezabaketa eskatuko dute. Gainera multinazional handiek estatuek pribatizatzen dituzten zerbitzuen onura dute.

Zer da orduan ZSAO? ZSAO akordio multilateral bat da. Akordio honek gobernuak egin ditzaketen akzioak mugatzen ditu, bertatik ateratzekotan merkatu santzioak edukiko baitituzte. ZSAO MMEk 1994an hartutako sistematik lehen erabakietako bat da, hau da, MMEko sinatari guztiek bete beharreko akordio bat da. 2000. urtean negoziazioak egin ziren Genoan akordio orokor hau salerosketa akordio erabilgarri bat bilakatzeko.

ZSAO akordioa oso anbizio handiko akordioa da eta era berean oso konplexua. Estatuek egin beharreko aldaketek asko dira eta mailakatuta daude. Lehenengo eskakizuna herrialde ezberdinek egin behar dituzten negoziazioen egutegia da. Bigarrena zerbitzuen salerosketarako herrialde-hobetsiaren akordioa da, hau da, herrialde batekin duzun akordioa beste herrialde guztiei ere eman behar diezula. Hirugarrenez akordioak zerbitzuen tratamendua zehazten du. Azkenik gehigarriak daude, sektorialak, telekomunikazioak eta finantza-zerbitzuek izan beharreko arauak zehazten ditu.

ZSAOk gobernuen neurri ia guztiak betetzen ditu. Honek legeak, erregulazioak, lege-markuak eta idatzi gabeko usadioak hartzen ditu. Estatu batek merkatu salerosketei eragiten dien neurriak hartu nahi baditu ZSAOren aurka egongo da. Neurri hauek ingurugiroaren babesa, kontsumitzaileen babesa, lan baldintzen hobekuntza, konpetitibitate justua laguntzea, zerbitzuen unibertsaltasuna ziurtatzea... izan daitezke.

ZSAOk zerbitzu sektore guztiak hartzen ditu eta hauek kontsumitzailearentzako helarazteko modu guztiak kontrolatzen ditu. Zerbitzu guztiak orain edo etorkizunean negoziatuko dira. Akordioak ez ditu bakarrik estatuen arteko salerosketak arautzen.

ZSAOk zerbitzu publiko gehienak erregulatzen ditu. Gobernuen autoritateak eskaintako zerbitzuak negoziatuz kanpo daude. Hala ere, hauek hain gutxi dira ia-ia ez dagoela espeziorik. Baina ZSAOko akordioetan erregulatutako zerbitzu bat estatuak emaniko beste batekin konpetizioan sartu ezkeren ZSAOren aurka egongo da. Honek hezkuntza, medikuntza eta antzeko zerbitzuak ukitzen ditu.

1.2. EREDU EUROPARRA Vs EREDU ANGLOSAXOIA: UNIBERTSITATEEN ARTEKO LEHIAK

Munduan bi motatako unibertsitate ofizial daude: europarrak eta anglosaxoiak. Eredu hauek guztiz antagonikoak ez diren arren, aldaketa nahiko dituzte bere ereduaren. European unibertsitatea beti ikaskuntzarako eremu aske gisa ulertu den bitartean (filosofikoki, ez praktikoki), Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan unibertsitateak dirua bilatzen du, hau da, bere izena ez dago egindako ikerketen menpe, baizik eta duen diruaren menpe. European unibertsitateek milaka ordutako irakaskuntza ematen duten bitartean ikertzaile bat hezteko Estatu Batuetan

ikasleak hasieratik hautatzen dituzte ikertzaileak zuzenki hautatuz. Hau da, Estatu Batuetan askoz merkeagoa da arrakasta akademikoa unibertsitatearentzat. Baina hori gertatzen den bitartean Europan tasak erlatiboki merkeak dira (hainbat estatutan azkeneko urteetan, gero azalduko den bezala, agertu dira tasak) eta Estatu Batuetan ikertzaileak hautatzen dituzten unibertsitate horietan sarrera lortzea zaila bada, ordaindu behar dena ikaragarria da. Azken finean ikasleak hauta daitezke, baina dirua dutenek ere sarrerak irekiak dituzte.

Bi eredu hauen arteko lehia nork irabazi duen argi dago: guztiok izenda ditzakegun mundu mailako garrantzia duten unibertsitateetatik gehienak Estatu Batuetan edo Ingalaterran daude. Eta hori da unibertsitatearen geroa.

1.3. HEZKUNTZA, NEGOZIO HANDIA

Zerbitzu guztiak negozio handiak dira. Hau da, edozein zerbitzuko erabiltzaileak baditu pribatizatu ezkerreko negozio ona izango da. Eta ZSAOn negozio guztiak pribatizatzea proposatzen da.

Hezkuntza pribatizatzeke bi eredu daude. Bata eskola bera pribatizatzea da, hau da, Hezkuntza Sistema enpresen esku uztea. Bigarrena propaganda da.

Lehenengo kasua jada martxan dagoela badakigu. Hezkuntza publikoa baino lehen existitu da hezkuntza pribatua. Hezkuntza pribatua Euskal Herriko matrikulazioaren herena baino gehiago suposatzen du eta unibertsitate publikoen erdia inguru.

Baina irakaskuntza pribatu hau ez dago zuzenki lotuta enpresetara, baizik eta interes erlijioso eta elitistetara. Hala ere irakaskuntza pribatizatzen ari denetik enpresa asko sartzten ari dira irakaskuntzaren negoziara. Euskal Herrian honen adibidea da Mondragon Unibertsitatea, zeinetan bere kooperatibarako langileak sortzeko irakaskuntza eskaintzen den. Modu honetako ereduak milaka aurki daitezke munduan zehar.

02/03 kurtsorako Arizonako Unibertsitate Estatalak eginiko ikerketa batean Estatu Batuetako hezkuntza irakaskuntzaren Kudeaketarako Erakunde (IKE) handiek pastelaren parte handiena jaten zutela ondorioztatzen da. IKE handiek (10 eskola baino gehiago bere eskuetan dituztenak) IKEen %78a dira. IKEek 512 ikasle/eskola batzbestekoa zuten, enpresa txikiek 220 zituzten bitartean.

Arizona eta Michiganeko estatuak oso lege malguak dituzte hezkuntzarekiko. Horregatik enpresa hauek betetzen dute irakaskuntzaren esparru handiena. Bi estatu hauetan IKEek ikasleen %50a hartzen dute. Estatu Batuetan 47 enpresek 24 estatutan dituzte egoitzak eta 190000 ikasle dituzte bere geletan. Eskola horietako asko eskola publikotzat dituzte, hau da, estatuak ematen diola dirua enpresari.

Enpresa horietako bat Edison Inc. da. Enpresa honek 2001 urtean 133 eskola zituen EEBBtan, estatuko eskola kudeatzaile handiena bilakatuz. Bere nagusia zen Chris Whittlen esanetan 2020rako EEBBko 10 ikasletik batek bere eskoletan ikasiko zuen. Edison Inc.ek Wall Streeten kotizatzen zuen, merkatuan \$38 balio zutelarik, bi urte lehenago \$18 dolarretan atera ziren akzioek %211 igo ziren bi urtetan.

Orain Edison zorretan dago. Hezkuntza proiektua oraindik gehiago puzteko eginiko azpajoko eta inbertsio erraldoiek enpresaren akzioak NASDAQen agertzeko behar

den minimoan daude, dolar bat. Edisonek 250.000.000 €-ko galerak izan ditu bere hasieratik.

Edison proiektua proiektu berri bat zen EEBBtan. Urteak ziren estatuak ez zutela onurarik ateratzen eskola publikoetatik. Milioika dolar inbertitzen ziren eta geroz eta txarrago zegoen sistema. Horregatik Whittlek Edison proiektua sortu zuen. Proiektu honetan ez zen aurreikusten eskolarik sortzea, eraikitzea, baizik eta eskola publikoak erosi eta bere kudeaketa kontrolatzea. Hau da, Estatuarena zen eskola batetik diru irabaziak ateratzea. Zergatik ez zuen ezer esan jendeak? Alde batetik eskola publikoak izaten jarraitzen zutelako eta bestetik Edison proiektuak Estatuaren kudeaketak baino hobea zira zirudielako. Baina, non dago negozioa eskola oraindik publikoa bada?

Edisonek akordio bat sinatu zuen Estatuarekin. Hau da, ez zituen eskolak eraiki ez erosi, baizik eta bere kudeaketaz arduratzen zen. Estatuak eskolan erabiliko zuen dirua Edisoni ematen zion honek eskolan erabil zezan. Xahutzen ez zuen diru guztia berarentzako zen. Diru hori irabazteko ideiak hauek ziren: eskola burokrazia (burokrazia estatal luze bat) enpresa burokraziatik aldatu, askoz azkarragoa dena. Orduz luzeagoak eta ikasturte luzeagoak jarriz ikasleek gehiago ikasiko lukete eta kurrikulum propioa ezarri zuten.

Eszeptikoentzako bi bide baino ez zeuden Edisonek dirua irabaz zezan: Hezkuntzarako dirua gutxitu edo diru gehiago lortu beste nonbaitetik. Askoren ustez irakasleak beraiek kontratatzen zituztenez (eta kasu batzuetan estatuak zuzenean ordaindu) esperientzia gutxiagoko irakasleak kontratatuko zituztela, merkeago ordainduz euren lana. Gainera kurrikulum berdina egitean ez zuten kontutan hartuko estatuen arteko ezberdintasunak ez eta komunitate ezberdinen artekoak, dirua ez zutelako galduko sistema oso bat diseinatuz eskola bakoitzean erabiltzeko. Gainera bere arrakasta erakusteko bakarrik azterketa estandarren prestakuntzan zentratuko zirela uste zuten. Aurreikuspen hauek bete ziren.

Zer egin dezake orain Edisonek galdu duen dirutza hori berreskuratzeko? Ordenagailuak saldu, materiala saldu, liburuak saldu, burokrazia ezabatu... baina bitartean ikasleak ikasle izaten jarraituko dute, lehen publikoa zen eskola batean, gainera.

Pribatizatzeke beste modu bat publizitatearena da. Publizitatean bi modu daude hezkuntzara heltzeko. Lehena publizitate arruntarena da, bigarrena doako publizitatearena, hau da, patrozinatzea.

Publizitate arrunta geroz eta gehiago ikusten dugu geure eskola eta unibertsitatetan. Koka-Kolaren iragarkiak ia-ia leku guztietan daude. Baina hau askoz basatiagoa izan daiteke eta badirudi izango dela hurrengo urteetan. Hau aurreratuago (berez atzeratuago!) dagoen estatua EEBB da, non pribatizatzeke ez duten inongo eskrupulurik. Gainera horietako askok interes handia izan dezakete bertan agertzeko, dirutza handiak emanez irakasgaiak patrozinatzeko. Iragarki hauek maila hauetan ager daitezke:

- Kirol lekuak: eskoletako kirol-lekuak (futbol-zelaia, frontoia...) iragarkiz bete daitezke. Baina hau oraindik urrutiago joan daiteke. Coca-Cola eta Pepsik markadoreak ordaindu dituzte hainbat eskoletan eta bertan "eskola taldearen patrozinatzailea" agertzen da. New Yorken FILA kirol arropa enpresak dirua eman zuen eskola askotako kirol-kantxetako parkeetan euren izena ager zedin.

- Zuzendaritza: lehen aipatu bezala IKE batek eraman dezake eskolaren kudeaketa. Beraz zuzendariaren bulegoan enpresaren logotipoa agertuko da.
- Korridoreak: Edisonek Whittlek, Whittle Communications enpresa sortu zuen. 80. hamarkadan jaio eta 1989an 5.400 institutu eta 9.000 lehen hezkuntzako ikastetxetan jarri zituzten bere panel informatiboak, hau da, publizitate panelak. 90. hamarkadan enpresak panelak kentzeari ekin zion, ez omen zelako dirutzarik ateratzen, baina beste enpresa batzuek bere lekua okupatu dute.
- Beste zerbitzu batzuk: Autobusak, garbiketa, segurtasuna... enpresa guzti hauek iragarkiak dituzte bere ganean, soinean, enpresarenak badira ere. Unibertsitateetako kafetegietan bandejetan jartzeko publizitatea eskaintzen zaio ikasleria osoari Euskal Herrian.
- Liburutegia: EEBBko 16 milioi ikaslek liburuak estaltzeko erabiltzen duten estaldia ez da gardena, baizik eta publizitate estalkiak. Hauek dohainik eskaintzen dituzte liburutegitan eta liburutegiko hainbat liburu ere hauekin estalita daude.
- Ikasgela: hau da ikaslearentzat iragarkiak jar daitezkeen leku nagusia. Nola egin daiteke, ordea? Iragarkiak egunero daude geure bizitzan, ikasgela hauek subliminalak dira. Hau da, ez ditugu bistaz nabaritzen, ez dugu ikasgelako mahaietan McDonalds ikusiko (momentuz). EEBBtan enpresek egiten dutena ikas-materialak ordaintzea da. Azkeneko urteetan mundu osoan testu-liburuetatik at dauden ikas-materialak (ikas-unitateak) nagusitu dira. Unitate hauek janariaren inguruan direnean Kellogg's, McDonalds, Nabisco Mars eta Wisconsin Dairy enpresek ordain ditzakete eskola-material hauek, estatuarekin akordioa egiten beraiek izan daitezkeen eskola material ofiziala egiten dutenak. Dupont, Dow Chemical, Proctor and Gamble, The National Energy Foundation eta Polystyrene Council-ek ingurugiroaren inguruko ikasketak ordaintzen dituzte eta kasu puntako batean McDonaldsek oihan tropikalen inguruko irakasgaia ematen du, bere ezabaketa McDonalds behientzako larreak sortzeko dela aipatu gabe. Petroleoko Mobil Corporationen unitateak prentsa askatasunaren inguruan hitzegiten du, bertan agertzen denez EEBBko konstituzioaren lehen puntuak kapitalismoa bermatzen duela aipatuz.

The Simpsons telebista telesailako 2F15 kapituluaren (Lisaren Ezkontza) etorkizuneko eskola bat agertzen da eta hitz hauek ikusten ditugu:

Troy: (telebistan) Ikus dezagun hurrengo buruketa. Hiru Pepsi badituzu eta bat edaten baduzu, zenbat freskatzen zara? Chicago eskola sistemako ume ilehori hori? (lehiatila bat irekitzen da neskaren aurpegia ikus dadin)

Neska: Pepsi?

Troy: Kreditu erdia irabazi duzu!

Hau umorea dela iruditu dezakeen arren ez da horrela. Edison enpresako buru den Whittlek Channel One enpresa du bere eskuetan. Telebista kate honek hezkuntza programak eskaintzen ditu, dohainik. Hekzuntza programa hauek eskoletako %40an ikusten dira. 12 minutuko programa bat dute egunero eta beraietatik 2 iragarkiak dira, Snickers, Rold Gold pretzels,

CareFree txiklea, Pepsi eta Reebok enpresena normalki. Beste 10 minutuak enpresak erabaki duen hezkuntza eskaintzeko erabiltzen dira.

Baina hau EEBBtan bakarrik gertatzen al da? Ez, gugandik askoz gertuago ere gertatzen da, Kataluniako Printzerrian hain zuzen ere. Hemen Gobernu Autonomoak akordio bat sinatu zuen Port Aventura parke tematikoen enpresarekin (Warner Bros) gizarte hezkuntzako liburu bat prestatu eta liburu hori erabil zedin. Liburua katalanez da eta kulturen inguruan hitzegiten du, hau da, munduan zehar egon diren hainbat kulturen inguruan. Zeintzuk dira kultura horiek? Mediterraneo, Txina, Polinesia, Far West eta Mexiko. Liburuan ikasleei bost kultura ezberdin hauek munduko kulturen errepresentazioa direla esaten zaie, Port Aventura aurki ditzakegun bost kulturen errepresentazioa, hain zuzen ere. Liburuetako argazki batzuk parkean harturik daude.

Ikusiko al dugu etorkizun batean Guggenheim fundazioak Artearen Historia liburua patrozinatzen duela edo MCCk gizarte liburu guztiak? Gerta liteke.

Modu honetan estatuak hezkuntza bere eskuetan du baina diru extra bat lortzen du hau merkeagoa izan dadin. Euskal Herrian ez da analisi seriorik egin baina arestian aipatutako kasu asko betetzen direla auresan daiteke.

1.4. URRUTIKO HEZKUNTZA

J

2.- EUROPA

2.1. BOLOGNA PROZESUA

ZSAO bada mundu mailan bazterrak nahasten ari den akordioa European Bologna prozesua dugu. Prozesu hau ez dago ZSAOrekin erlazionatuta, edo hala dela adierazten da, baina behin irakurrita argi dago erlazio hori egon dagoela.

Bologna Prozesuan agertzen diren puntuak 1957tik datoz, non Europako Hezkuntza Markoa definitzea proposatu zen. Hala ere, prozesu berri hau 1998an Sorbonako Deklarazioan hasten da. 1999an Bologna Deklarazioa sinatzen dute Europar Batasunako herri guztiek eta hurrengo urteetan sarrera eskatuko zuten hainbat herrik. 2001ean Pragako goi-bileran Goteborgeko ikasle deklarazioa eta Salamancako errektoreen deklarazioa kontutan hartuz 29 herrialde sinatzen duten akordioa plazaratzen da. 2010erako prozesu guztiek bukaera izan behar dute, justuan ZSAOk definitzen duen momentuan. Honek ZSAO-Bologna erlazioaren lehen ideia bat ematen digu, baina ez da bakarra eta kasualitatea izan zitekeela ere argudia dezakete sinatzaileek.

Zer da Bolognan definitzen dena? Europako Goi-Hezkuntza Esparrua. Zer da hau?

- Europa mailako titulazio homologagarrien sistema bat hartzea.
- Hezkuntza Sistemaren eraldaketa bat.
- Kreditu sistema bateratu baten sorrera.
- Ikasle eta irakasleen mugikortasuna bilatu.

Guzti hauek aurrerantzean aztertuko ditugu, baina Bologna deklarazioa ulertzeko beste hainbat faktore ulertu behar ditugu. ZSAOrekiko paralelo akordio hauek eramateko arrazoia Europar Eraikuntza da.

Europak badaki ZSAOrekin EEBB irabazle aterako dela eta EB galtzaile. Batez ere EBko herriek hartzen dituzten akordioak bakoitzak bere kasa hartuko dituelako, ez dagoelako sistema amankomunik. Beraz EEBBri aurre egiteko modu bakarra EB osoa elkarrekin egotea da, Europar Batasuna europarren batasuna bilakatzea. Baina horretarako traba oso handiak daude. Alde batetik estatu bakoitzak dituen legediak ezberdinak dira; honetarako Konstituzio Europarra planteatzen da. Europako herri guztiek dute bere kanpo ministroa, 15 herrialdeek diplomazia egitea zailtzen delarik; horretarako sortzen da Mr. Pesc pertsona, orain Javier Solana OTANeko idazkari ohia delarik. Era berean Europar Polizia bat sortzeko apustua egiten da.

Baina aldaketa guzti hauek ez dute sakoneko arazoa konpontzen: Europako herritarrek bere herrian geratzeko tendentzia dute. Hizkuntza traba handi bat bada, lana bilatzearena are handiagoa. Orain dela urte gutxi arte karrera bat ikasi duen edonork ez zuen bere titulua homologatua ikusten Europako beste herrialde batzuetan.

Hau aldatzeko sortzen da ere Europako Goi-Hezkuntza Esparrua. Ikasle batek bere tituluak homologatuak ikusten baditu, urte bat ematen badu master bat egiten beste hizkuntza batean, ERASMUSEkin ohitzen bada urte batetan kanpora joaten... askoz errazagoa izango da Europar sentimendu hori sortzea.

2.1.1. ECTS (EUROPAR KREDITU SISTEMA)

Duela zenbait urte ECTS sistema sortu zen. Sistema hau unibertsitate kredituen elkartruketarako balio du. Aurkitu zen lehenengo traba hau zen: zer da kreditu bat? Estatu bakoitzak bere kreditua definitzeko sistema ezberdina erabiltzen zuen, batzuk ez zuten kreditu sistematik eta beste batzuentzat kreditua erabili arren ez zuen zer ikusirik beste herrialdeetan zenarekin.

Definizioz ECTS kreditu bat hau da: kurtso batek 60 kreditu ditu (Estatu Espainiarrean eta Frantziarrean antzeko neurriak daude) eta kurtso bakoitzean 40 aste egongo dira. Estatu Espainiarrean orain 30 aste daude eta 38ra igoko da hurrengo urteetan. Honela lauhilabete bakoitzak 15 aste izango ditu eta azterketarako 8 aste egongo dira. Estatu Frantziarrean 24 aste dira orain eta proposamenean 40 hartzea esaten da.

Aste bakoitzak 40 orduko lana izango du. Hau da, full-time ikaslea eskatzen da, zeinek ezingo duen lanik egin bere ikasketak ordaintzeko. Beraz proposamena daukan Espainiar Estatuak aztertuta (Frantziarrak oraindik alde batzuk definitzeko ditu, baina oso antzekoa izango da) 1520 ordu klase eman beharko dira 60 kreditu lortzeko, beraz orain dagoen 10 ordu / kreditu bat ratioa 27,5 ordu / kreditu bat sistemara pasatuko da.

Baina, nondik aterako dira 40 ordu klase horiek? Argi dago ezin dela klase gehiagorik eduki. ECTS kreditua ez du definitzen Estatu Espainiarreko ordu presentzialen antzera (zeinetan irakaslea egon behar den) baizik eta ikasketa orduen arabera. Hau da, kredituak ikasleak "irabazten" ditu, ez irakasleak. Aldaketa filosofiko hau Frantziar Estatuak zuzenean hartu du, lehen ez baitzuek

kreditu sistemarik definituta. ECTS kredituen arabera, klasera joandako orduetaz gain, etxean, liburutegian... klase horiek ulertzeko behar diren orduak ere kontutan hartzen dira, lanak eta beraien prestakuntza, liburuen irakurketa, tutoriak, azterketak... hau da, suposatzen da ikasle batek ez dituela astean 40 ordu baino gutxiago lan egingo, edo hori izango dela gutxi gora behera batazbestekoa.

Honekin hainbat esperientzia piloto egin dira. Gizarte Zientzien arloan honako definizio hau egin da:

- Lehen mailako ikasle batek ordu batetan 4-5 orri irakurri, ulertu eta azterketarako presta ditzake.
- Bigarren mailatik aurrera 6-7 orri dira.
- Lan baten orrialde bat sortzeko aurretik 100 orri irakurri behar dira.
- Lan baten orrialde bat sortzeko 16 orduko lana behar da, irakurtzen eta idazteko.

Beraz kredituen asignazioa egiteko kalkulu hau egiten da ikasgai honetarako:

- 2 ordu astean irakaslearekin 15 astez: 30 ordu urtean..... kreditu 1
- 15 orriko lan bat egitea (1500 orri irakurtzea)..... 9 kreditu
- Azterketarako testuen irakurketa (330 orri / 6 =55 o).....2 kreditu
- Testu berezien irakurketa.....Kreditu 1
- Testuen bilaketa.....Kreditu 1
- GUZTIRA:**14 kreditu**

Zientzien arloan ordu teoriko batek 2 orduko ikasketa behar duela kalkulatu da eta ordu praktikoko batek 45 minutu. Gainera teoriak praktika ratioa 70-30 dela aurreikusten da.

Nola egingo da, orduan kredituen banaketa? Irakasle bakoitzak bere ikasgaiak dituen beharrak esan behar litzateke, baina honek irakasle bakoitzak bere ikasgaiaren gain balorazioa egitea ekarriko luke. Honegatik kredituen banaketa Administrazioak ezarriko luke, irakasleek baloratu eta ikasleen hitza kontutan hartu. Gainera urtero berrikusiko litzateke. Hala ere badirudi irakasleek ez dituztela inkestekin baino kontsultatuko eta behin eginda inoiz ez dela gehiago berrikusiko.

Ikaslea full-time izateak abantaila bat du estatuarentzat: irakaskuntzaren elitizazioa gertatuko da, Europar Batasuneko milaka ikasle gutxiago egongo direlarik ezingo baitute bere ikasketak lanarekin konpatibilizatu. 1800 ordu hauen azalpena emateko ikerketa batetan oinarritutako datuak ematen dira. Honen arabera Batxilergoko ikasle batek 3000 ordu egiten ditu urtean kurtsoa gainditzeko. Datu honen balioa dudak jar daitezke, honek suposatzen duelako ikasle batek egunero (igande, uda eta jaiak kontutan hartuz) 8,2 ordu egiten dituela lan, hau da, etxean 2,2 ordu egiten dituela egunero. Ikasgelan ikasle batek pasatzen dituen 1500-1800 orduetatik gain beste 1200-1500 ordu ematen dituela etxean aipatzen da. Honen arabera Unibertsitate ikasle batek ere ordu horiek erabiltzea hain zaila ez dela argudiatzen da.

Honela unibertsitateak bakarrik ikasketak ordaindu eta horretara bakarrik biziko direnak bilatzen ditu. Ikasle batek lana egin nahi badu urrutiko hezkuntza izango du beretzat, internet bidezkoa edo klasikoagoa dena.

Badirudi ECTS sistemarekin berrikuntza pedagogikoak egotea planteatzen dela. Ez da hala. Irakasleek beren irakaskuntza metodoak aldatzeko beharrezkoak diren pausuak ez dira emango. Kredituak berdinak badira Europa osoan, honek esan

nahi du sistema bera dela, hau da, irakatsi behar den materia berdina izango dela ECTS sistemaren barnean dauden unibertsitateetan. Beraz herri bakoitzean egon daitezkeen behar pedagogikoak ez dira kontutan hartzen.

2.1.2. TITULAZIO HOMOLOGATUEN SORRERA

Gaur egun ikasleen mugikortasuna bermatzeko ikasten diren karrerek titulu bateratua izatea eskatzen dute, hau da, Estatu batean emandako titulua baliagarria izatea beste edozein estatuan.

Honetarako lehen aipatutako ECTS erabiliko da alde batetik eta bestetik "Tituluaren Suplementua".

ECTSn 60 kreditu urteko karrerak emango badira, karrerek urte kopuru eta kreditu kopuru bera izatea eskatzen da, ez baitu inongo logikarik lehen aldaketa isolaturik emateak.

Honela Europa mailan 180 eta 240 kreditu arteko karrerak sortuko dira. Estatu espainiarrean 3 edo 4 urteko karrerak egongo dira eta Frantziarrean 3koak. Estatu Espainiarraren kasuan titulua karrera ezberdinen arabera 180 edo 240koa izango da. Orain arte 4 edo 5 urteko karrerak 3 edo 4 urtekotara pasako dira. Modu honetan askoz ikasgai gehiago sartu beharko dira urte bat gutxiagoan bukatzeko. Planen aldaketa argia da.

3 edo 4 urte hauek bukatzerakoan izango duzun titulua Ingeniari, Arkitektu edo Lizentziatua izango da.

Baina sistema honek ezin du baimendu ikasketa gutxiago eginez titulu bera izatea. Azkeneko urteetan Diplomaturako ikasketak desagertu dira Espainiar Hezkuntza Sistematik. Beraz lehen Diploma eta Lizentziaren artean egongo litzatekeen titulu bakar hori Lizentziatura izango litzateke.

Bigarren aukera tituluaren balorea degradatzea da, hau da, ikasgai guztiak konprimatzearen ordez, batzuk kendu eta generalistagoa eta degradatuagoa izango diren ikasketak sortzea. Honek kredibilitate handia eskaintzen du, unibertsitateek interes handiagoa baitute ondoren egon daitezkeen ikasketetan eta titulazioak merkeak izan daitezen nahi dute. Hau da, gaur egun unibertsitate eskakizunak handiagoak direla ikusita, titulazioak ahalik eta azkarren ematea bilatzen da, eta titulazioak, ikaslearentzat balio berdina izango du, baina ez lan munduarentzat.

Lanbide Heziketek 2 urtetako iraupena dute. Beraz Lanbide Heziketa bat ikasten duen orok Lizentziatura baten erdia edukiko luke. Baina gaur egun enpresa askok bere langileak hezi daitezen nahi dute, batez ere lanbide heziketa berezi bat (adb. Sare telematikoak) eta karrera tekniko bat (adb. Ingeniaritza informatikoa). Honegatik European oso nagusitua ez dagoen arren UPVk eta Eusko Jaurlaritzak akordio bat sinatu berri dute LHtako ikasketak karrera konkretu batzuetan konbalidatzeko. Baina hau egin ahal izateko ikasketa prozesu oso berezi eta zuzendu bat egin beharko litzateke, bakarrik enpresa mundura bideratua dagoena. Zer dago orduan Lizentziaturaren gainean? Bai Espainiar bai Frantziar Estatuetan urte bakar bateko, 1,5 edo 2 urtetako masterrak egongo dira. Master hauek orain daudenen antzekoak izango dira, eta 60, 90 edo 120 kreditu izango dituzte. Lehen zikloari gradu deituko zaion bitartean honi postgradoa deituko zaio. Master edo Doktore titulua lortuko da ikasketaren arabera.

Bi motatako masterrak egongo dira: zuzenean lan-mundura egokituta egongo direnak eta doktoretza bat lortzeko zuzenduta egongo direnak. Masterra lortzeko kreditu guztiak bukatu eta lan bat egin beharko da, tribunal baten aurrean defendatu beharko dena.

Beraz bi gradu ezberdin hauek lehen mailako titulu degradatu bat eta bigarren mailako titulu berezitu eta ultra-espezializatu bat sortzerakoan bigarren mailako honen doakotasuna eta publikotasuna kolokan jarriko dira. Gaur egun masterrekin gertatzen dena oraindik gehiago instituzionalizatuko da.

Bi motatako masterrak egongo dira: europar-masterrak eta master-propioak. Lehena europar mailako masterrak izango dira. Hauek Europar akreditazioa izango dute eta Europa osoan interesgarriak diren masterrak dira. Beste maila batean master-propioak egongo dira, hau da, unibertsitate bakoitzak eskainiko dituenak eta agian akreditaziorik izango ez dutenak. Gerta daiteke propio batzuk akreditazioa izatea, baina interes berezia dutelako.

Bestalde, bere prezioaren arabera bi motatako masterrak ere egon daitezke: master publikoak eta master pribatuak.

Badirudi unibertsitateak eskaintzen dituen master-propioak eta europar-master batzuk doakoak izango direla eta gainontzekoak garesti ordaindu beharko direla, kalitatearen arabera. Kalitatea Akreditazio agentziak emango du.

Azkenik hirugarren gradu bat egongo da, doktoretza izango dena. Nahiz eta (3,4)+2 sistemarekin askotan doktoretzarako bidea ireki, beste 2 urteko doktoretza egingo da, 8 urteko ikasketak beharrezkoak direlarik honetarako. Azken bi urte hauek ez daude oraindik oso definituak, beraz ez dago datu askorik emateko.

Kalifikazioak A, B, C, D, F, Fx izenekin emango dira, sistema amerikarrarekin hain zuzen ere. Titulua lortzerakoan jasotako media agertuko da ehunekotan adierazita. Hala ere, urteen berdinketa ez da Europar kohesio hori lortzeko erabiliko den gauza bakarra. Bigarren metodoa "Tituluaren Gehigarria" da. Gehigarri hau ez da izango karreraren informazio guztia bilduko duen soporte bat baino. Non ikasi den, zenbat urte, zer eduki, zeintzuk izan diren jasotako notak... Tituluaren gehigarri honek Europako beste edozein herrialdetan tituluaren homologaziorako dokumentu estandarra izango da.

Karrera batek akreditazioa jasotzeko behar-beharrezkoa du minimo batzuk betetzea. Minimo horiek kurrikulumean finkatuko dira. Kurrikulum bateratu hori Europako Akreditazio Agentziak sortuko luke, estandar batzuetan oinarrituz. Kurrikulum horretatik at dagoena estatu bakoitzeko akreditazio agentziak definituko du. Oraindik argi ez badago ere gutxienez 2/3 Europatik homogeneizatuko dira.

2.1.3. HEZKUNTZA SISTEMAREN ALDAKETA

Europar sistemen homologazioa emateko hurrengo puntua hezkuntza sistemen aldaketa da.

Aldaketa hauek emateko legeak aldatu behar dira. Hau da Lang legearekin gertatu dena Ipar Euskal Herrian eta LOUarekin Hego Euskal Herrian.

Lang legeak eta LOUk aurretik Bolognan erabakitakoaren arabera mugitzen dira. Hau da, lege hauek ECTS eta Titulazioen aldaketak aurreikusten dituzte.

3.- ERAGINA EUSKAL HERRIAN

Dekretu eta akordio hauek eragin zuzena izango dute Euskal Herrian. Eragin hori ezagutzerako garaian geure herriak dituen banaketa administrabiak kontutan hartu behar ditugu. Hala ere orokortasun bat egon daiteke, batez ere ZSAOk sortutakoak. Azter ditzagun bada beraietako batzuk.

3.1. EUSKARA, HIZKUNTZA EZ-OFIZIALA

Europar euskara ez da hizkuntza ofiziala, baina Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroako iparraldean bada. Honek arazo bat ekarriko du: hizkuntza bat ofiziala ez bada ez da kontutan hartzen europar erakundeentzat ezta ECTS edo ERASMUS programentzat.

Euskara, gainera, salerosketa askerako traba bat bezala ikus daiteke. Zer esan nahi du honek? Edozein estatuk estatu espainiarra (Frantziarra honegatik salatzea oso zaila izango litzateke) hezkuntza salerosketa bat egiterakoan kontratatutako irakasleek euskara jakin beharko luketelako, bere estatuko enpresak zailtasun hori dutela sala dezake eta Espainiar Estatuaren aurka auzi bat jarri NMEren aurrean. Euskara traba bat kontsidera daiteke ikasketetan (nahiz eta gaur egun traba hori ez den existitzen) eta desagertu.

3.2. KARREREN DESAGERPENA

Karrera askok desagertzeko arriskua dute prozesu honetan. Arte Ederrak eta Filologiek arazoak izaten dituzte mundu kapitalistan funtzionatzeko. Estatu Batuetako unibertsitateetan hauek ia ez dira existitzen.

Gainera kurrikulumen desagerpena emango delako Filologia ez indoeuropearrek arazotan ikus dezakete euren buruak. Euskal Filologia eskaintzekotan Europako filologia guztiak bete beharko litzuketen minimoak izan beharko litzuzte, beste gutxi hori euskarari eskainiz. Hau gutxiegi da inguruan dituen hizkuntza batentzako. Autore batzuen arabera hizkuntza ez ofizialetako filologiak errentagarriak ez direnez desagertuko dira.

Berdina gerta daiteke Historiako espezialitateekin, Europako Historia Amankomun batengatik (hau baden galdetu beharko diogu geure buruei) egiten delako apustua.

3.3. PLAN BERRIAK

Euskal Herrian dauden unibertsitate guztiak moldaketak egin beharko dituzte euren sistemetan. Honetarako LOU, Lang legea eta Euskal Unibertsitate Legea erabiliko dituzte.

Azken honekin aldaketa nagusi bat badago: Euskal Autonomi Erkidegoan Europarekiko paraleloak diren agentziak sortzeko apustua egiten da. Espainiar Estatuak Akreditazio Agentzia propioa eta Unibertsitate Koordinazio organoak sortzen diren bitartean Euskal Akreditazio Agentzia eta Unibertsitate Sistema sortzeko araudiak proposatu dira. Lehenak aurreko bi puntuetan aipatutako arazoak ekiditeko sortuko litzateke eta bigarrena nolabaiteko azpi batzorde bat sortzeko.

Bi neurri isolatu hauek berriro ere Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan arazoak partxeatzeko sortzen dira eta inola ere ez organo independenteak sortzeko, Europaren aurrean sortuko direnak.

Lehen esan bezala bai batak edo besteak planak aldatu beharko ditu. Honek hurrengo urteetan arazo handiak sortuko ditu (edo sortu beharko lituzke) Euskal Herrian dauden unibertsitate ezberdinetan.

3.4. PRIBATIZAZIOA

Oraindik ez dakigu zenbat pribatizatuko den hezkuntza eta ea Estatu Batuetan dagoen mailara helduko den. Hala ere geroz eta publizitate gehiago, enpresa pribatu gehiagoren egoitzak egongo direla ikustea ez da zaila.

Unibertsitateetan egunero enpresa pribatu gehiagok dute interesa eta honen aurrean hartu behar den jarrera definitu behar da.

Alemanian dagoeneko Deutsche Bankek eskolaren pribatizazio osoa planteatu du eta hau berehala etor daiteke Euskal Herrira.

Bussiness School eta bestelako unibertsitate pribatuak urterik urte gehiago hazten dira eta unibertsitate publikoek ez dute inolako lanik egingo ezin dutelako beraien irakaskuntza elitistarekin bukatu.

3.5. ERASMUS. NAZIOARTEKO IKASLEAK.

Urtetik urtera unibertsitateetan ikusten ditugun ikasle gehiago arrotzak dira. Hau unibertsitatearen prestigiorako ona bada ere, euskararentzat txarra dela ezin da uka. Ikasle guzti hauek Espainia edo Frantziara datoz, ez Euskal Herrira eta beraien hizkuntza Espainola edo Frantsesa da.

Askok argudia dezakete gaur egun master eta karrera asko ingelesez direnean euskaraz egitea eskatzea anakronismo bat dela. Gezurra da. Ikasle hauek euskaraz ikastea ia ezinezkoa bada ere, euskara ikastea exijitu behar den zerbait da. Ikasleentzat beste hizkuntza bat jakiteak, nahiz eta hizkuntza ez-ofizial bat izan, onura bat baino ez da. Eta hori da euskal ikasleok borrokatu behar duguna.

Bestalde kontrako zentzuan ere Erasmusen mugimendua handituko da eta geroz eta euskal ikasle gehiago atzerrira joango da. Ikasketa plan egoki bat burutzeko, hau da, lan merkatuan sartu ahal izateko, urte bat atzerrian ematea ezinbestekoa izango da gero eta gehiago. Europar-masterrak egiteak ere garrantzi handia izango du eta honetarako aukera gehiago daude Euskal Herritik kanpora.

Euskal ikasleak kanpora joateak garrantzi handia izango du hurrengo urteetan, euskal ikasleon borrokarentzat atxikimendua galtzea ekar dezake, hainbat ikaslek urteak kanpoan pasatzeagatik. Era berean atzerrian diren euskal ikasleen arteko nolabaiteko sarea sortzea ez legoke gaizki, geure borroka beste lekuetan isla dadin.

3.6. ESPARRU IREKIA

Europako Unibertsitate esparruak aldaketa handiak ekartzen ditu. Alde batetik ikasleon mugikortasuna handituko da bai Erasmus programen bitartez bai eta etorkizun batean zuzenean. Honegatik euskal ikasle guztiak Europar ikasle izango dira, hau da, berdina izango da titulua hego zein ipar Euskal Herriko ikasleontzat.

Baina hau ez da guztiz egia. Edozein ikaslek Europar ikasle gisa titulua izango badu ere lehenago Frantziar edo Espainiar ikasle gisa edukiko du titulua. Hau,

gainera, erreforzatua izan da azkeneko urteetan Espainiar barruti irekiaren ideiarekin, non estatuko ikasleen mugikortasuna handituz Europarekiko egon daitezkeen arazoak (muga administratiboak) ezabatu nahi diren. Modu honetan unibertsitate sistema bakarra izango da Estatu Espainiarrean, Akreditazio Agentzia bakarra sortu ahal izango delarik. Frantziar Estatuan zentralismoa aurretik existitu da, eta horrela jarraituko du.

Honen aurrean Euskal Herriko Barruti bat eskatzea baino ez zaigu geratzen. Barruti hau de facto existituko da Europar barruti bakarra sortzerakoan, guk geuk jar ditzakegulako barrutiak nahi dugun lekuan. Honetarako gakoa hizkuntzan egon daiteke.

4. EUSKAL UNIBERTSITATEA.

Badirudi Bologna Prozesuarekin Euskal Unibertsitaterako bidea irekitzen dela. Hau ez da guztiz egia. Bologna Prozesuak duen onura homologazioa lortzeko Espainiar edo Frantziar estatuen papera desagertzen dela da, hau da, prestigiodun beste unibertsitate batek Euskal Unibertsitatearen karrerak homologatu ezkeru zuzenean onartuak izango lirateke.

Baina ez gaitzen engainatu... hau zirrikitu bat baino ez da. Argi dago Euskal Herriak Nazioartean ahotsik ez duen bitartean zirrikitu hauek erabili beharko ditugula baina Bolognak ez digu unibertsitate propio baten bidea irekitzen, baizik eta beharrezkoa den pausu bat erraztu. Beste guztiak era berean ixten zaizkigu.

Ez dugu ahaztu behar Euskal Unibertsitatea ez dela soilik euskarazko unibertsitatea, homologazioa lortuko duen euskara hutsezko goi irakaskuntza bat. Publikotasun, kurrikulum propio, hezkidetz... parametrotan kokatuko badugu bakarrik herri ekimenez eta Euskal Hezkuntza Sistema Nazionalaren bitartez lortu ahal izango dugu.

ZSAO – BOLOGNA	EUSKAL HERRIA	GEURE BORROKA
Hezkuntzaren pribatizazioa da apustua. Merkatua ireki eta hezkuntza produktu bihurtu.	Eskola pribatuak goratzea hezkuntza publikoaren kontra. Diru gutxiago hezkuntzarentzat. Unibertsitate pribatu berriak.	Hezkuntza publiko bat aldarrikatu. Merkantilizazioa salatu eta hezkuntza saldu nahi duten enpresen interpelazioa.
ECTS. Kreditu sistema bateratua.	ECTS sistema lpar zein Hego Euskal Herrian. Plan berriak.	Plan hauek bere lekuan kokatu: merkantilizazioa. Honen aurrean irakaskuntza publiko eta kalitatezko bat aldarrikatu eta soluzioa Euskal Unibertsitatean kokatu. Pedagogiaren aldaketa sakona borrokatu.
Unibertsitate ikasketen homologazioa. Europako Akreditazio Agentzia.	Estatuetakoa Akreditazio Agentziak. EAEko Akreditazio Agentzia. EAEko Unibertsitate Sistema.	Akreditazioa atzerrian bilatu eta Euskal Unibertsitatearen ikasketak prestigiatu.
Balio kulturalen homogeneizazioa: amerikar baloreen gorakada. Europak kulturen garrantzia, bakarrik hitzez.	Frantziar eta Espaniar kulturen goraipamena munduan lekua izateko. Euskal identitatearen folklorizazioa balio kultural bitxi gisa.	Euskara eta euskal kultura defendatu. Folklorizazioaren gainetik balorizatu: Euskal Unibertsitatea, euskarazko akreditazioa.
Ikasleak lan-esku merkea.	Ikasleak lan-esku merkea.	Ikasleon duintasuna aldarrikatu. Zabor-lanen aurrean eta praktiken aurrean planteamendua.
Irakaskuntzen mailaketa. Akreditazio agentziaren bitartez.	Unibertsitate pribatuen (MCC, Deustu) goraipamena.	Unibertsitate herritar baten sorrera aldarrikatu. Euskal Unibertsitatea
Ikasleen mugikortasuna, lan mundura bideratuta.	Ikasleen mugikortasuna Espaniar zein Frantziar ikasle gisa.	Etorkinei azalpena eta doazenei lana. Euskal Herria geure herria da.
Irakaskuntza epeen berdinketa.	3+2, 4+2.	Plan berri hauen maskara kendu. Kalitatezko aldaketak exijitu.